**Gipuzkoako Parrokoen %77ak -horien artean 14 Artzipresteetatik 11- kontsentsu zabal bat iritsita beren kezka agertzen dute idatzi hau sinatuz. Gipuzkoako elizaren ordezkariek bat eginda diote Jose Ignazio Munilla "ez dela inondik ere pertsona egokia Elizabarrutiaren Gotzain-eginkizuna betetzeko".**

# Gipuzkoako parrokoen gehiengo zabal batek idatzi bat sinatu du Jose Ignazio Munilla Gotzain berriaren izendapenarekin bere desadostasuna adieraziz.

Ia hilabete da Jose Ignazio Munilla Donostiako Gotzain izendatu zutela, eta gipuzkoako parroko gehienek adierazpen bat sinatu dute, Gipuzkoako Elizaren ordezkari berriaren izendapenarekin beren desadostasuna agertuz.

110 Parrokoetatik 85ek azaldu dute beren "samina eta kezka", Gotzain berria izendatzerakoan izan den azpi-asmoa eta erabili den prozedura dela eta.

Guztira, 131 izan dira sinatzaileak, aktiboan dauden gipuzkoar apaizen gehiengo zabala; elizbarrutiko apaizak, nahiz apaiz erlijiosoak dira manifestuarekin bat egin dutenak.

**Desadostasuna eta gaitzespena**

Gipuzkoako Elizbarrutikoan pastoral ardura duten apaiz eta erlijiosoek beren "desadostasuna eta gaitzespena" azaldu dute izendapenarekin eta saminez "deitoratzen" dute erabaki hau hartzean Elizbarrutiko Elizaren eta bere erakundeen sentipena kontuan ez hartu izana. Gainera diote Jose Ignazio Munilla Gotzainaren ibilbidea "Elizbarrutiko lan-ildoetatik urruti zegoela eta ez zuela halakoekin bat egiten".

**Pastoral hautuekin bat egitea**

Apaizek diote "bat egiten dutela" orain arte Elizbarrutian egituratu diren pastoral-ildoekin eta eliz estiloarekin, eta beren borondatea eta konpromisoa agertzen dute "urte hauetan egindako hautapen pastoralei eutsi" eta horien arabera jarraitzeko. Gainera, ziur daude ondoan izango dutela aurrerantzean ere beren kristau fedearekin leial diren "sinestedun askoren lankidetza".

**El %77 de los Párrocos Gipuzkoanos -entre los que se encuentran los 11 de los 14 Arciprestes- logran un claro consenso y deciden manifestar su inquietud con la firma de este comunicado. Los representantes de la iglesia gipuzkoana se unen para reivindicar "que el nuevo Obispo no es en modo alguno la persona idónea para desempeñar el cargo asignado".**

# La amplia mayoría de los párrocos gipuzkoanos firma un comunicado manifestando su disconformidad con el nombramiento del nuevo Obispo José Ignacio Munilla.

A falta de pocos días para que se cumpla un mes del nombramiento del nuevo Obispo José Ignacio Munilla, la mayoría de los párrocos gipuzkoanos han firmado un comunicado para manifestar su disconformidad con la decisión del nombramiento del nuevo responsable de la Diócesis gipuzkoana.

De los 110 párrocos, 85 han trasmitido su "dolor y profunda inquietud" con la intencionalidad y el procedimiento seguidos en el nuevo nombramiento.

En total, han sido 131 las firmas que representan a la mayoría del clero gipuzkoano en activo; tanto sacerdotes diocesanos como religiosos han expresado su conformidad con el manifiesto.

**Disconformidad y Desaprobación**

Los sacerdotes y religiosos con cargo pastoral de la Diócesis de Gipuzkoa han manifestado su "disconformidad y desaprobación" por el nombramiento y "lamentan y deploran" que esta decisión no haya respetado el sentir de la Iglesia Diocesana y sus organismos pastorales. Además, aseguran que el nuevo Obispo José Ignacio Munilla cuenta con "una trayectoria pastoral profundamente marcada por la desafección y falta de comunión con las líneas diocesanas".

**Apoyo y adhesión a la línea pastoral**

Los curas insisten en manifestar su "apoyo y adhesión" a la línea pastoral y estilo eclesial que se ha ido forjando hasta ahora en la Diócesis y refuerzan su voluntad y compromiso de "seguir caminando en coherencia con las opciones pastorales" que han mantenido a lo largo de los últimos años. Asimismo, tienen el convencimiento de que seguirán recibiendo la "colaboración de tantos y tantos creyentes" que mantienen su fidelidad a la fe cristiana.

**SACERDOTES Y RELIGIOSOS CON CARGO PASTORAL DE LA DIÓCESIS DE GIPUZKOA**

Con motivo del nombramiento del nuevo obispo de nuestra Diócesis y desde nuestra condición de sacerdotes y religiosos de la Iglesia de Gipuzkoa, movidos por la responsabilidad que tenemos ante nuestra Iglesia local, queremos expresar lo siguiente:

- Hemos recibido con dolor y profunda inquietud la designación de D. José Ignacio Munilla para presidir y dirigir la Iglesia de Guipúzcoa, designación que ha sido percibida por nosotros como una clara desautorización de la vida eclesial de nuestra Diócesis y también como una iniciativa destinada a variar su rumbo.

- Manifestamos nuestra disconformidad y desaprobación con la intencionalidad y el procedimiento seguidos en el nombramiento de D. José Ignacio Munilla como Obispo de nuestra Diócesis. Lamentamos y deploramos que en una cuestión tan trascendental como ésta no se haya tenido en cuenta ni respetado el sentir de nuestra Iglesia Diocesana y sus organismos pastorales.

- Conocemos de cerca la trayectoria pastoral de D. José Ignacio Munilla como presbítero, profundamente marcada por la desafección y falta de comunión con las líneas diocesanas. Consideramos que en modo alguno es la persona idónea para desempeñar el cargo de Obispo y Pastor de nuestra Diócesis.

- Manifestamos nuestro apoyo y adhesión a la línea pastoral y estilo eclesial que se han ido forjando en nuestra Diócesis en fidelidad al espíritu del Concilio Vaticano II con el aliento y dirección pastoral de nuestros obispos.

- Por ello mismo, desde la fidelidad al evangelio de Jesucristo, nuestro amor a la Iglesia y servicio a nuestro pueblo, queremos reiterar ante nuestras comunidades cristianas nuestra voluntad y compromiso de seguir caminando en coherencia con las opciones pastorales que hemos mantenido a lo largo de todos estos años.

- Estamos convencidos de que no nos va a faltar el aliento del Espíritu ni la colaboración de tantos y tantos creyentes que en estos momentos de incertidumbre seguirán aportando lo mejor de su experiencia cristiana.

En Gipuzkoa a 14 de diciembre de 2009

**GIPUZKOAKO ELIZAREN APAIZ ETA ERLIJIOSO PASTORAL KARGUDUN HAUEK**

Gure Elizbarrutirako gotzain berria izendatu dutela eta, Gipuzkoako Eliz elkarteko apaiz eta erlijioso garenez, lekuko gure Elizaren aurrean dugun erantzukizunak eraginik, honako hau azaldu nahi dugu:

- Saminez eta kezka handiz hartu dugu Jose Ignacio Munilla jaunaren izendapena Gipuzkoako Eliza presiditzeko eta gidatzeko. Gure Elizbarrutiko eliz jardueraren gaitzespen zehaztzat eta, orobat, norabidea aldatzeko ekimentzat hartu dugu.

- Aditzera ematen dugu ez gatozela bat eta gaitzetsi egiten dugula Jose Ignacio Munilla gure Elizbarrutiko Gotzain izendatzeko izan zen azpi-asmoa eta erabili den prozedura. Deitoratu egiten dugu hain garrantzitsua den arazoa aurrera eramateko gure Elizbarrutiaren eta beraren erakunde pastoralen sentimena aintzakotzat hartu ez izana eta errespetatu ez izana.

- Badakigu Jose Ignacio Munilla jaunak bere apaiz-lanean izan zuen ibilbidea Elizbarrutiko lan-ildoetatik urruti zegoela eta ez zuela halakoekin bat egiten. Beraz, uste dugu ez dela inondik ere pertsona egokia gure Elizbarrutiaren Gotzain- eta Artzain-eginkizuna betetzeko.

- Aditzera ematen dugu bat gatozela gure Elizbarrutian, Vatikanoko II. Kontzilioaren espirituari leial erantzunez, oraino landu dugun ildo pastoralarekin eta eliz ereduarekin, gure Gotzainek suspertua eta gidatua izan delarik.

- Eta horrexegatik, Jesu Kristoren ebanjelioarekiko leialtasunak, Elizarekiko maitasunak eta gure herria zerbitzatu nahiak eraginik, behin eta berriz diogu, gure kristau-elkarteen aurrean, urte hauetan egin ditugun hautapen pastoralei eutsi nahi diegula eta horien arabera jarraitu lanean.

- Ziur gaude geurekin izango dugula Espirituaren indarra eta sinestedun askoren lankidetza, une nahasi hauetan beren kristau esperientziaren emaitzarik hoberena eskaintzen jarraituko baitute.

Gipuzkoan, 2009.ko Abenduan 14